## Zentral nuklearrak: bai ala ez?

Japoniakoa gertatu ostean, pil-pilean dugun gaia da zentral nuklearrena. Horren gaineko iritzia azaldu dute Euskadi Irratiko Faktoria saioan, Igor Peñalva Euskal Herriko Unibertsitateko ingeniaritza nuklearreko eta fluidoen mekanikako departamentuko irakasleak eta Iñaki Barcena EHUko zientzia politikoko irakaslea eta Ekologistak Martxan erakundeko kideak; bata alde eta bestea kontra.

Gai horren jiran, 3 ariketa egiteko aukera daukazu: bata hiztegiarekin lotuta, eta beste biak entzundakoa ardatz hartuta.

Transkripzioa ikusi

## Hiztegia lantzen

Entzungo duzun audioa hobeto ulertzeko, ondo etorriko zaizu gai horrekin lotutako hitz batzuk ezagutzea.

Lotuko al dituzu hitzak beren definizio edo azalpenekin, gainean klik eginez?

| Hitza | Azalpena |
|---|---|
| **berriztagarri** | adib. petrolioa, gas naturala eta ikatzak |
| **gogoeta** | poliki-poliki handitzen joan |
| **erraustegi** | hondakinak edo beste zernahi gauza errauts bihurtu arte erretzeko prestatutako instalazioa |
| **kirats** | erantzule egin, errua bota |
| **hazi** | berez edo gizakiaren ahaleginez berriztatzeko gaitasuna duen natura-baliabidea |
| **erregai** | pentsatzea, gogoan erabiltzea eta horren ondorioa |
| **xahutu** | usain guztiz txarra dariona |
| **leporatu** | alferrik gastatu |

Zuzendu    Erantzun zuzenak ikusi

[Transkripzioa ikusi]

## Alde eta kontra

Zentral nuklearren gainean duten iritzia azaldu dute Euskadi Irratiko Faktoria saioan, Igor Peñalva Euskal Herriko Unibertsitateko ingeniaritza nuklearreko eta fluidoen mekanikako departamentuko irakasleak eta Iñaki Barcena EHUko zientzia politikoko irakaslea eta Ekologistak Martxan erakundeko kideak.

Entzun audioa, eta esan ondoko esaldiak nork esan dituen: Igorrek, Iñakik ala ez batak eta ez besteak.

| | Igorrek | Iñakik | Inork ez |
|---|---|---|---|
| **Gure energia-kontsumoa jaitsi beharra daukagu.** | | | |
| **Aukeran inork ez du zentral nuklear edo antzeko instalazio baten ondoan bizi nahi.** | | | |
| **Aukeratu beharra dago: energia berriztagarriak edo nuklearra.** | | | |
| **Dilema da: energia nuklearra ala erregai fosilak?** | | | |
| **Euskal Herrian badago aukera zenbait elementu naturaletatik energia ateratzeko.** | | | |
| **Behar dugun elektrizitatearen  bostetik bat, energia nuklearretik jasotzen dugu.** | | | |
| **Energia berriztagarriek ez dute, epe motzera, gure energia-beharrik aseko.** | | | |
| **Eztabaida nagusia da: noiz itxi zentral nuklearrak eta zenbat energia behar dugun ondo bizitzeko.** | | | |
| **Zentral nuklearrak beharrezkoak dira, dugun energia-eskaera kontuan hartuta.** | | | |

Zuzendu    Erantzun zuzenak ikusi

Transkripzioa ikusi

## Zentral nuklearren beharra

Igor Peñalva Euskal Herriko Unibertsitateko ingeniaritza nuklearreko eta fluidoen mekanikako departamentuko irakasleak eta Iñaki Barcena EHUko zientzia politikoko irakaslea eta Ekologistak Martxan erakundeko kideak zentral nuklearren gainean duten aldeko eta kontrako iritzia azaldu dute Euskadi Irratiko Faktoria saioan.

Audioa entzun ondoren, aukeratu ondoko adierazpenik egokienak.

1. **Igor Peñalvaren ustez, zentral nuklearren**
   - beharra dago, baina jendeak nahi ez duenez beste alternatiba batzuk bilatu behar dira.
   - beharra daukagu, gure energia-premiak betetzeko.
   - beharra enpresa handiek sortu dute jendearengan.

2. **Energia-eskaerak une honetan**
   - behera egin du Japoniakoa gertatu ondoren
   - behera egin du, krisi ekonomikoa dela-eta.
   - gora egiten du etengabe.

3. **Hiru estuotatik, zentral nuklearretatik elektrizitate gehien lortzen duena da**
   - Espainia
   - Frantzia
   - Japonia

4. **Igorren aburuz, dilema da ………………..…. erabiltzea.**
   - energia garbiak edo kutsakorrak
   - energia nuklearra edo energia berriztagarriak
   - energia nuklearra edo erregai fosilak

5. **Igorren iritziz, datozen 10-20 urteetan ............ energia-beharrei.**
   - aurre egin ahal izango diegu
   - ez dago argi aurre egin ahal izango diegun
   - ezingo diegu aurre egin

6. **Iñaki Barcenaren ustez, berriz, garrantzizkoa da**

- energia-kontsumoa jaistea, bizi-kalitatea jaitsi gabe.
- energia-kontsumoa jaistea, nahiz eta bizi-kalitatea jaitsi.
- eztabaidatzea aurrerapenaren ala osasunaren alde egiten dugun apustu.

7. **Energia berriak ateratzeko, Euskal Herrian aukera izango genuke ............... lortzeko.**
   - eguzkitik.
   - haizetik eta uretatik.
   - itsasotik eta haizetik.

Zuzendu　Erantzun zuzenak ikusi